

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4475

EBAZPENA, 2025eko urriaren 10ekoa, Garapenaren eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita EAEko Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren «IAT-ITV Jarraibidea» deritzon jarraibidearen V.2 berrikusketa egitea.

Eusko Jaurlaritzak, EAEko ibilgailuen azterketa teknikoko zerbitzuaren enpresa emakidadunek irizpide eta jarduketa berdinak izan ditzaten, hainbat jarraibide ezarri ditu 90eko hamarkadaz geroztik, eta jarraibide horiek egokitu egin dira ibilgailuekin lotutako Estatuko eta autonomia-erki-degoko araudietara.

Ibilgailu motordunen eta haien atoen aldizkako azterketa teknikoei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/45/EB Zuzentaraua eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretua indarrean jartzeak aldaketa esanguratsuak eragin zituen ordura arte zeuden jarraibideetan eta, ondorioz, jarraibide horiek erabat birmoldatu eta dokumentu bakar batean sartu behar izan ziren, «IAT-ITV Jarraibidea» izenekoan.

Bai IAT Estazioak Ikuskatzeko Prozedura Eskuliburua, bai Ibilgailuak Eraberritzeko Eskuliburua eguneratu egin dira, eta eguneratze horiek «IAT-ITV Jarraibidea» izenekoan jasotako xedapenei eragiten diete; horrenbestez, jarraibidea ezinbestez berrikusi behar da.

Beraz, «IAT-ITV Jarraibidea» lehen aipatutako araudiaren eguneratzeetara egokitu behar da. Eguneratze horiek Industria Arloari lotutako estamentu teknikoek gainbegiratu dituzte, eta EAEko Ibilgailuen Azterketa Tekniko zerbitzuaren enpresa emakidadunei jakinarazi zaizkie.

Horregatik guztiagatik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutako eskumenekin bat etorritik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— EAEko Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren «IAT-ITV Jarraibidea» deritzon jarraibidearen V.2 berrikusketa onartzea. Jarraibide hori 2025eko abenduaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta haren eranskina web-helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ibilgailuen-aldizkako-eta-nahitaezko-azterketa-iat/web01-a2indust/eu/>

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Industria Sustatzeko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 10a.

Garapenaren eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JOSE LUIS AZKUE ARRASTOA.